

## **EUSKARAZ BIZI NAHI DUT: LELOTIK PENTSAMENDURAKO BIDEA**



Ezer baino lehen KARMEL aldizkariari erreferentzia egitea nahitaezkoa dela iruditzen zait. Lehenik eta behin zorionak helarazi nahi dizkiet KARMEL aldizkaria kalean egotea posible egiten duten guztiei. Jakin dakigu, gure hizkuntza oraindik egoera gutxiagotuan dagoela eta egungo gizartean zaila dela argitalpen bati urtez urte eustea eta jarraipena ematea. Bada, KARMEL aldizkariak duintasunez eusten dio zeregin horri.

Oraingoan Kontseiluko idazkari gisa hurrengo urteetako erronken berri emateko eskaera egin didate. Ezin uko egin hain eskaera interesgarri eta erakargarriari, are gutxiago kontuan hartuta KONTSEILUAN KARMEL aldizkaria beti izan dugula bidaide zintzoa.

### **Nondik gatoz?**

1997ko martxoan, Donostian egindako Euskararen Unibertsoa izeneko jardunaldien ondoren eta bertan bildutakoen eraginez sortu zen Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua. Garai hartan ere, orain bezalaxe, euskararen normalizazioaren

eta egoeraren azterketa egin ondoren, kezka nagusitu zen euskaltzaleen artean. Horrexegatik, euskararen garapenaren egoeraz kezkatu eta euskal kulturagintzak bizi zuen sakabanaketari aurre egiteko asmoz, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua eratzea erabaki zen. Hartara, Kontseiluaren eginkizun nagusiak Euskalgintzaren ahotsa izan eta eragin soziala bideratzea ezarri ziren, bai eta Euskalgintzaren proiektu eta auzi nagusiak aztertu zein burutzea ere.

14 urte luze igaro dira ordutik, eta Kontseiluak hainbat proiektu eta ekimen jarri ditu abian helburu hori lortzeari begira: Hizkuntz Eskubideen Behatokia, Ziurtagiriaren Elkarteak, Euskaraz Bai Dinamika Herrietan, Udalerrien Hizkuntza-politiken neurketa, Hizkuntza-politiken azterketa etab. Halaber, beharrezkoa izan denean, Kontseiluak gizartea aktibatu izan du gure hizkuntzari egindako erasoaren aurrean. Zalantzarik ez urte oparoak izan direla; hala ere, nahikoa ez dela ohartu gara. 14 urteotan gauzak asko aldatu dira, bai eta gizarrean bertan ere; eta ondorioz egungo errealitatea oinarriztat hartuta, pauso bat harago egitearen beharraz jabetu gara.

Lehenik eta behin, gogoratu behar dugu hizkuntzaren normalizazioa prozesu konpartitua dela. Euskalgintzak, eragile soziopolitikoek zein sindikalek, instituzioek... bai eta norbanakoek ere parte hartzen dute prozesu horretan eta horietan guztietan eragiteko tresnak jarri behar ditugu abian. Horrela, jakin dakigu, Euskalgintza sektore askok osatzen dutela, eta ezinbestean jakin behar dugu sektore bakoitzaren egoera aurrera begirako estrategia definituko badugu. Bakoitzak bere zeregin espezifikuari helduz, bakoitzak normalizazio-prozesuan dagokion ardurari eutsiz eta denborafaktoreak duen garrantziaz jabeturik, datozen urteotan bul-tza egin behar dugu normalizaziora eramango gaituzten baldintza sozialak, politikoak, ekonomikoak eta juridikoak lortzeko.

## ***Bai euskararik Euskaraz baira***

Azken urteotan, *Bai euskarari* ideiak euskararekiko aldeko-tasuna sustatu du, baina ez dugu lortu aldeko-tasun hori konpromiso praktikoetara bideratzea alde daudenen kasu guztietan. Esan liteke gizartearen gehiengoak konpartitzen duen ideia dela, baina ideia horrek herritar bakoitzari iradokitzen diona desberdina den neurrian ez digu balio orain normalizazioa bizkortzeko.

Euskararen alde egoteko eta egiteko euskara ikasi eta erabili behar dela helarazi behar diegu norbanakoei, euskarari gizarte-espazioak eskaini behar zaizkiola ulertarazi behar zaie gizarte-eragileei eta hizkuntza-politika berri eta eragingarria behar dugula jakinarazi behar diegu eragile politiko zein instituzionalei. Eta noski, horrek guztiak estrategia berriak sortzera garamatza.



### ***Euskaraz bizi nahi dut***

*Euskaraz bizi nahi dut* esaldiari lotzen zaio hurrengo urteetarako estrategia. Halere, *euskaraz bizi nahi dut* esatean ez gara lelo batez ari. Lelotik pentsamendurako jauzia egin behar dugu. Izan ere pentsamendua aldatuz sortzen dira aldaketa sozialak.

*Euskaraz bizi nahi dut* ideia da pentsamendu berri hori egituratu behar duena. Hizkuntza bat ezagutzeak ez dakar berez hizkuntza horretan bizitzeko nahia. Gutariko askok atzerriko hizkuntzak ezagutzen ditugu, baina ez dugu horregatik hizkuntza hori erabiliz bizi nahi. Hizkuntza horiei zeregin funtzional koiunturala ematen diegu, ez dute gure bizi-modua aldatzen, ez eta gure ingurunean eragiten ere. Euskara normalizatuko bada, ordea, ikuspegi funtzional eta koiuntural hori gaingitu beharra dago eta horretarako, *euskaraz bizi nahi* da desberdintasuna ezartzen duena. Euskara bizitzeko hizkuntza da, euskara ez da motibazio akademiko hutsengatik ikasten den zerbait, euskara ez da motibazio pragmatiko hutsengatik ikasten den hizkuntza, euskara bizitzeko hizkuntza da.

Pentsamendu arras berritua da, hizkuntzak fenomeno sozialak direlako eta ezin delako euskaraz bizi aldaketa sozialik gabe. Pentsamendu hori gizartean errotzen dugun neurrian, herritarrak, gizarte eragileak, eta arduradun politiko-instituzionalak ideia horren baitan jokatzen hasten direnean, gizarte aldaketa burutzen egongo gara.

Baina, hurrengo urteetako estrategia definituko badugu, erabaki egin behar dugu nori zuzenduko gatzaizkion, hau da, nork izan behar duen gure mezuen jasotzailea. Mezua jasoko duten horiek zer sentitzea, pentsatzea edo egitea lortu beharko genuke zehaztu behar dugu baldin eta gizarte-aldaketara baldin bagoaz, *euskaraz bizi nahi dut* pentsamenduak gidatutako gizartera hain zuzen ere

## Norbanako euskaltzaleak

Hainbeste denbora instituzioei hitz egiten egon ondoren, ohartu gara, norbanakoei, herritarrei, ez diegula behar beste arreta eskaini. Lehendik esan dugun bezala, proposatzen ari garen aldaketak gauzatzeko, ezinbestekoa da gizarte-multzo zabal baten babesa eta bultzada izatea. Horretan ere, are zehatzago jokatu behar dugu. Jakin badakigu, euskal gizartea heterogeneoa dela eta ezinezkoa dela mezu berarekin guztiengana heltzea. Horregatik, ahalik eta esparru zabalenera heldu nahi izan arren, gure mezua nagusiki nori zuzenduko diogun hautatu behar izan dugu. Hautu horretan, norbanako euskaltzaleak izendatu ditugu gure mezuen jasotzaile nagusi gisa. Norbanako horiek euskaltzale aktibo izateaz, eragile izateaz hitz egin dugu askotan. Horren aurretik ordea, bada gure ustez, landu beharreko pentsamendu edota sentimendu bat: *euskaraz bizi nahia*, alegia. Norbanako horiek euskaraz bizi nahi izatea bultzatu behar dugu. Nahi horrek sakonekoa izan eta euren eguneroko jardunean eragina izan behar luke. Horrek, hain zuzen, eramango ditu euskararen aldeko eragile izatera.

## Gune euskaldunak

Azken urteetako joera izan da jardun-gune desberdinetako norbanakoen artean zirkuituak sortzea, horrela, jardun-gune desberdinetan euskaraz egin ahal izateko aukera eskaini nahian. Jakin badakigu, ordea, hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko hautua ez dagoela (soilik) norbanakoaren esku. Hortaz, jardun-gune horietako hizkuntza nagusia edo hegemonikoa erdara den neurrian, harreman horiek, luzera, erdalduntzeko arrisku bizia dute. Are gehiago, hiztun berri bat sartzen denean jardun-gune horietan, hiztun horrek erdararen aldeko jendarte-araua da jasoko duena. Jardun gunean eraikitako gizarte-arau hori ez baita aldatu. Jardun-gunea bera euskalduntzerakoan, ordea, ez gara soilik harreman batzuk euskalduntzen ari. Jar-

dun-gune horri dagokion hizkuntza hauturako gizarte-arauak ezartzen ari gara, euskara nagusia edo hegemonikoa izango den gune bat osatzen ari gara. Modu horretan, hizkuntza ohi-tura horiek iraunaraztea eta hiztun berriak etortzen direnean horietara egokitzea, errazagoa suertatzen da. Besteak beste, euskara *de facto* beharrezko bilakatzen baita gune horietan.

Bertute horiek eraman gaituzte, euskara nagusi den guneak edo arnasmuneak deiturikoak hizkuntza berreskurapen-prozesurako estrategikotzat hartzera. Arnasmune horiei buruz aritzean, gainera, ez genuke, herri-herrixka, auzo edota gune geografiko-territorialetara mugatu behar. Gure ustez, jardun-gune zehatz edo sozio-funtzionaletara (lantoki, ikastetxe...) ere luza genezake kontzepzio hori.

### **Euskalgintza (bazkideak)**

Kontseilua euskararen gizarte erakundeen bilgunea izanik, argi dago, gure jardunaren hartzaile nagusietako bat euskalgintzak izan behar duela. Euskalgintzaren baitan, noski, gure bazkide diren erakundeek leku berezia hartzen dute gure jardun-an. Horien premia eta beharrei erantzuten asmatu behar dugu. Horrela, ondorengo urteei begira, sektoreetan biltzen diren bazkideen arteko kohesioa landu eta sektoreko aldarriak eta helburuak finkatzea izango da lehen zeregina. Horrekin batera noski, bazkideak Kontseiluko ikuspegi eta jardunaren inguruko ahalik eta kohesio eta bateratasun gehien lortzeko lan egin beharko da. Azkenik, bazkideek, bai Kontseiluko lan-ildoak, bai eta sektoreetakoak ere gara ditzaten eragile edo sustatzaile lana egitea dagokigu.

### **Udalak**

Instituzioetan daude hizkuntza-eskubideak bermatu, hizkuntza arautu eta hizkuntza-politika garatzeko baliabide nagusiak. Lehendik adierazi bezala, gure jardunaren ardatz nagusia





ez dugu irudikatzen instituzio nagusien aurrez aurreko eragite-lanean. Hori lortzeko, gainontzeko xede-taldeen bidez garatu beharreko zeharkako eragin-lana ikusten dugu bide eraginkorrena. Horrek ez du esan nahi, ordea, eurekiko interlokuzioa eta interpelazioa eten behar ditugunik. Horri, orain arte eman diogunaren pareko garrantzia emango ez diogula, baizik.

Bada, halere, amaraun instituzionalean, lehenetsi nahi den esparru bat: udalena, hain zuzen. Esperientziak erakutsi digu udal administrazio-esparruan hizkuntza-politika mailako aurrerapauso praktikoak emateko aukerak egon badirela. Ez hori bakarrik, udalek gainerako instituzioei begira ere eragile paper garrantzitsua joka dezaketela uste dugu. Euren hizkuntza-politikei edo hizkuntza-araudiei ezartzen dizkieten muga edo oztopoen aurrean modu antolatu eta bateratuan aurre egiteko aukera izanez gero, udalek eragin-ahal garrantzitsua izan dezakete.

### **Alderdi politikoak eta eragile sindikalak**

Argi dago eragile sozio-politiko nagusiak direla alderdi eta sindikatuak. Egungo hizkuntza-politikak alderdien irizpideetan oinarritzen dira. Horregatik, eremu horri begira ere lanketa berezia egin behar dugu..

Bazkideekin adierazi dugun bezala, alderdi eta sindikatuekiko harremanean ere urrats bat harago jo behar dugu. Hasieran esan dugunez, hizkuntzak behar duen lekua irabaztea eta beharrezkoak dituen mugarren inguruko ideiak txertatzea izango da alderdi eta sindikatuekiko jarduna markatuko duen zeregina. Horrela, euskaraz bizitzeko eskubideak, euskaraz bizi ahal izateak, eztabaida politikoen erdigunean lekua egitea lortu asmo dugu

### **Euskararen unibertsoak pauso bat harago**

Adituek esaten dutenez, erakundeetako balio nagusia, bertako kideak dira. Bertako langile edo pertsonak, alegia. Kon-



tseiluak, erakundeen erakunde izanagatik, pertsona horiengana heldu nahi du. Guregandik hurbil egon litezkeen bazkide-erakundeen kideetatik hasita, bere herrian zer edozer egiten duen edo egin nahiko lukeen pertsonarengana. Euskaltzaleok, euskaldun naiz erdaldun, zer egina eta zer esana badugu euskararen normalizazio prozesuan, zalantzarik gabe. Kontseiluak, guztion bilgune izan nahi du. Bakoitzak bere esparrutik egin dezakeen ekarpena oso garrantzitsua denaren zalantzarik ez du. Ondar ale askorekin egiten da multzoa. Horrela lortuko dugu gure jarduna modu eraginkor eta indartsuan egitea.

*Paul Bilbao Sarria*  
Kontseiluko idazkari nagusia  
Andoainen, 2011ko iraliaren 8an.